



2030 ERAKO  
INGURUMEN  
ESPARRU  
PROGRAMA  
PRESTATZEKO  
**PROZESU PARTE-  
HARTZAILEARI  
BURUZKO  
TXOSTENA**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO





2030 ERAKO  
INGURUMEN  
ESPARRU  
PROGRAMA  
PRESTATZEKO  
**PROZESU PARTE-  
HARTZAILEARI  
BURUZKO  
TXOSTENA**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



## A. PROZESU PARTE-HARTZAILEAREN FASEAK

### PROZESU PARTE-HARTZAILEAREN FASEAK

Euskadiko 2030erako Ingurumen Esparru Programa Eusko Jaurlaritzaren ekintza garapen jasangarriaren alorrean datozen urteetan gidatuko duen dokumentua da. Programa modu parte-hartzailean prestatzeko prozesuak fase hauek izan ditu:

#### 1. FASEA: INGURUMEN ESPARRU PROGRAMAREN BATERAKO SORKUNTZA (2021EKO IRAILETIK 2022KO IRAILERERA)

##### 1.1 ERRONKAK IDENTIFIKATZEA, OSATZEEA ETA BALIOZKOTZEA (2021eko irailetik 2022ko maiatzera).

Ingurumen Esparru Programa prestatzera zuzendutako lehenengo urratsa izan zen Euskadiko ingurumen-erronka nagusiak identifikatzea. Horretarako...



##### 2021eko iraila - azaroa ->

Euskadiko ingurumenaren egoerari buruzko dokumentuak eta adierazleak aztertu ziren..



##### 2021eko iraila - abendua

-> Jasangarritasunaren alorreko erreferentziazko plangintzak aztertu ziren, bai erkidegokoak eta bai Europakoak: Basque Green Deal, European Green Deal, 2030 Agenda, EBko Ingurumen Ekintzaren VIII. Plana, eta estrategia sektorialak (biodibertsitatekoak, ekonomia zirkularrekoak...).



**2021eko abendua - 2022ko martxoa** -> Aurreko bi jarduerak sortutako informaziotik abiatuta, ingurumen-erronka batzuen aurre-diseinua egin zen 2030erako.



**2022ko apirilak 1-15** -> Erronka horietan adituak diren pertsonak identifikatu ziren, diziplina anitzeko ikuspegi batetik. Sei lantalde aditu eratu ziren (bat erronka bakoitzeko) eta koordinatzaile bat izendatu zen horietako bakoitzerako.



**2022ko apirilak 27** -> Prozesua aurkezteko jardunaldi bat egin zen, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak gidatua, eta taldeentzako deialdia egin zen.



**2022ko maiatzak 1-10** -> Talde adituen banakako lanaren 1. etapa garatu zen: sei ingurumen-erronkei buruz hausnartzea eta erronka horiek osatzea eta baliozkotzea (funtsezko ideiak, aukerak eta arriskuak), eta proiektu eraldatzaileetarako ideiak sortzea.



**2022ko maiatzak 11-13** -> Sei talde adituen bileren 1. etapa egin zen, banakako prozesuaren hausnarketak jendaurrean konpartitzeko.

Fase horren emaitza izan zen 2030erako Ingurumen Esparru Programaren **6 LEHENTASUNEZKO ERRONKAK** baliozkotzea:

1. Politikei zeharkakotasuna ematea.
2. Osasuna eta ingurumena.
3. Jasangarritasun lehiakorra.
4. Kontsumo-eredu kontzientea.
5. Finantziazio jasangarria.
6. Monitorizazioa eta kudeaketa aurreratua.



## 1.2 PROIEKTU ERALDATZAILEEN DISEINUA (2022ko maiatzetik 2022ko irailera).

Euskadiko lehentasunezko 6 ingurumen-erronka horiei erantzuteko, egokitzat jo da “proiektu eraldatzaile” multzo bat modu bateratuan sortzea, adituen parte-hartzearen bitartez.

**Zer da proiektu eraldatzailea?** Proiektu eraldatzailea da etorkizunari begira aldaketa iraunkorrak sortu nahi dituen, dela egiturazkoak, dela jokabideren arlokoak, dela beste edozein motatakoak. Proiektu horien ezau-garriak honako hauek dira:

- Ekintza eta epe ertainerako **EMAITZA UKIGARRIAK** azpimarratzen dituzte.

- Zehaztapenean eta **BIDERAGARRITA-SUNEAN** daude oinarrituta.
- **BERRIKUNTZAREN** eta erreferentzialtasunaren bilaketan daude zentratuta.
- Ikuspegi eta izaera handinahia dute, estatu eta Europa mailan **AURRENDARIAK**.
- Lan-plataforma **PUBLIKO-PRIBATUETAN** garatzen dira.
- **BATERAKO LIDERGOA** eta gaitasunen batuketa bermatzen dituzte.
- **BALIABIDEEN TRUKEA** errazten dute (baliabide teknikoak eta giza baliabideak).

**Proiektu eraldatzaileak eraikitza zuzendutako urrats konkretuak** honako hauek izan dira:

### 2022ko maiatzak 20-25

Proiektuen hasierako zerrenda bat baliozkotzea, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren aldetik.

### 2022ko ekainak 5-16

Banakako lanaren bigarren etapa: proiektuak lehenestea, egituratzea eta operatibizatzea eta haien garapenaren gakoak identifikatzea.

### 2022ko ekainak 17-30

Proiektu eraldatzaileen fitxak zabaltzea eta doitzea.

### 2022ko iraila -abendua

Proiektu eraldatzaileen ikuskapen teknikoa, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren aldetik. Proiektuen azterketa, garatu beharreko jardueren berrikuspena eta jarduera berrien proposamena; proiektuen arrakastaren palanka eta gakoak identifikatzea.

### 2022ko maiatzak 13-20

Proiektuen fitxak presatzea, laguntza teknikoaren aldetik, 1. faseko banakako eta taldekako dinamiketan adituek plazaratutako ideiak oinarritat hartuta.

### 2022ko ekainak 4

Trukerako jardunaldia Ingurumen eta Jasangarritasun Sailaren eta koordinatzaileen taldearen artean.

### 2022ko ekainak 15-17

Taldekako lan-saioen bigarren etapa, proiektuak definitzeko eta haien garapen eta bideragarritasunerako palankak bilatzeko.

### 2022ko uztaila -abuztua

Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak 2030 IEPea integratuko dituen proiektuen aurkezpena.



## 2. FASEA. 2030 IEP HERRITARREKIN IREKIAREN BIDEZ KONTRASTATZEA

### 2.1 AURKEZPENA (2022ko azaroaren 14an)

2030erako Ingurumen Esparru Programaren zirriborroa kontrastatzeko lehen urratsa izan zen dokumentua Irekiaren webgunean eskaintzea, eduki esanguratsuenen laburpen batekin eta herritarren hausnarketa piztera zuzendutako galdera multzo batekin. Galderak honako hauek izan ziren:

- Planteatutako erronketatik, zure ustez zein dira euskal gizarteak aurrez aurre dituen garrantzitsuenak?
- Zer ideia edo ekintza bururatzen zaizkizu erantzuna emateko eta erronka horietan aurrera egiteko?
- Zer eskatuko zenieke administrazioei erronka horiek lortzeko? Eta zeuk zer egin zenezake?

### 2.2 EZTABAIDA (2022ko azaroaren 15etik abenduaren 1era)


Geroago, eztabaida-fase bat ireki zen; bertan, herritarrek dokumentuaren aldeko eta kontrako jarrera azaldu ahal izan zuten, euren argudioak, iruzkinak eta ekarpenak aurkeztuz.

### 2.3 KONKLUSIOAK (2022ko abenduaren 1etik 31ra)

Prozesu parte-hartzailea ekarpen kualitatibo nagusien laburpen batekin bukatu zen; ekarpen horiek baliagarriak izan dira honako lan-orientabide hauek ateratzeko, beste askoren artean:

- Honako hauen aldeko apustua egitea: sareko lana, aliantza publiko-pribatuak, eta gero eta konplexuagoak diren ingurumen-erronkei erantzuten dieten diziplina anitzeko lan-taldeak.
- Ingurumenak gainerako kudeaketa-eremuekin duen loturari buruzko ezagutza handitzea, batez ere osasunari dagokionez, "One Health" ikuspegitik. Erabakiak hobeto hartzeari begira big datak dituen potentzialtasunak ustiatzea.
- Jasangarritasunerako konpromisoak eta agendak euskal enpresetan sortzea, haien tamaina zeinahi delarik ere. Horrekin batera, gizartea kontsumo arduratsuagorantz mobilizatzea.
- Parte-hartze soziala jasangarritasunaren arloan bultzatzea, informazio integrala eskuratuz. Haur eta gazteei bereziki zuzentzea, haien ingurumen-sentsibilizazio eta -partaidetza lehenengo etapetatik bultzatuz.
- Lurraldearen kohesioaren alde egitea eta haren multifuntzionaltasuna eta paisaia-aniztasuna zaintzea.

Jasotako gako guztiekin, 2030erako Ingurumen Esparru Programaren behin betiko erredakzioa egin zen.



## B. PROZESUAREN TRESNAK

### PROZESUAREN TRESNAK

Faseen araberako azalpenean ikus daitekeen bezala, prozesu parte-hartzailea ondoren aipatzen diren **7 TRESNA ETA ESPARRUETAN** oinarritu da gehienbat:



Adituen **BANAKAKO HAUSNARKETA-PROZESU** orientatua. Hausnarketa-prozesu orientatu horrek ahalbidetu du aurretik landutako ideiak izatea, taldekako lanean kontrastatzeko.



**AUSNARKETA-PROZESU KOLEKTIBOAK** (lantaldeen bilerak), proiektu interesgarrienen inguruko adostasuna lortzeko.



**PROZESUAREN IKUSKAPENA**, Ihoberen eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren aldetik; horrek bermatu du proiektu eraldatzaileen ideiak bat zetozela 2030 IEParen helburuekin.



**TALDEAK KOORDINATZEKO FIGURAK**. Talde bakoitzean boluntario bat arduratu zen beraren lidergoaz, eta informazioa Ingurumen Jasangarritasuneko



Sailburuordetzaren eta taldearen artean pasatzen lagundu zuen.

#### **JASANGARRITASUN SAILEKO ARDURADUNEN ETA TALDEETAKO KOORDINATZAILEEN ARTEKO JARDUNALDIA**

Topaketa horrek ahalbidetu du proiektuei koherentzia ematea eta gizarteari modu bateratuan komunikatzea.



#### **LAGUNTZA TEKNIKOA ETA ZALANTZAK ARGITZEKO BULEGOA.**

Sei lantaldeek laguntza tekniko bat izan dute, eta horrek erraztu ditu deialdiak egiteko zereginak, lan-saioen dinamizazioa eta konklusioen dokumentuen sorrera.



#### **PROIEKTUEN FITXAK.**

Prozesu parte-hartzailean zehar, modu metagarrian, proposatutako proiektu eraldatzaileei buruzko informazio egoki guztia biltzen zuen dokumentu bat prestatu zen (helburuak, inplikatu beharreko eragileak, jarraipenerako adierazleak...).





## C. PROZESU PARTE-HARTZAILEAREN EMAITZAK

### PROZESU PARTE-HARTZAILEAREN EMAITZAK

Prozesu parte-hartzailearen emaitza orokorrak honako hauek dira:

**63 ADITU**,<sup>1</sup> eremu publiko eta pribatukoak.

**25 HERRITAR** (Irekiaren bidez).

**38 ERAKUNDE**<sup>2</sup>

**18 GUNE PARTE-HARTZAILE**

**PROIEKTU**

**ERALDATZAILEETARAKO**

**EKINTZEN 51IDEIA** (Ingurumen

Jasangarritasuneko Sailburuordetzak aurretik onartutako 14 ideiatan sailkatuta).


**INGURUMEN**

**JASANGARRITASUNEKO**

**SAILBURUORDETZAREN**

**77 EKARPEN,**

proiektu eraldatzaileen doikuntza teknikorako (ekarpenen % 90 txertatu da, eta gainerakoak kontuan hartuko dira proiektu eraldatzaileen bide-orrien definizioan).



**HERRITARREN**

**34 EKARPEN IREKIAN**

(ekarpen konkretuak dagozkien zuzendaritzei helaraziko zaizkie: Ingurumen Kalitatea eta Ekonomia Zirkularra, Natura Ondarea eta Klima Aldaketa).

Jarraian, emaitza bakoitza aztertzen da xehetasunez.

#### C.1 PERTSONAK ETA ERAKUNDEAK

ERRONKAK	ERAKUNDEAK	PERTSONAK
<b>1. ERRONKA. Politikei zeharkakotasuna ematea</b>	<b>7 erakunde:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Aclima</li> <li>• Euskadiko Energia Klusterra</li> <li>• Bizkaiko Foru Aldundia</li> <li>• Eusko Jaurlaritza - Lehendakaritza</li> <li>• Ihobe</li> <li>• Tknika</li> <li>• UPV/EHU</li> </ul>	<b>11 pertsona</b> <b>% 55 gizonak</b> <b>% 45 emakumeak</b>
	<b>2. ERRONKA. Osasuna eta ingurumena</b>	<b>8 erakunde:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ámbar</li> <li>• BC3 Research</li> <li>• Biodonostia</li> <li>• CEIT</li> <li>• Egibide</li> <li>• Eusko Jaurlaritza – Osasun Saila</li> <li>• Ihobe</li> <li>• UPV/EHU</li> </ul>

<sup>1</sup> Kalkulu hau egiteko, prozesuan parte hartu duten banakako pertsonak kontabilizatu dira (pertsona batzuek erroka batzuetan parte hartu zuten).

<sup>2</sup> Kalkulu hau egiteko, prozesuan parte hartu duten banakako erakundeak kontabilizatu dira (erakunde batzuek erroka batzuetan parte hartu zuten).



ERRONKAK	ERAKUNDEAK	PERTSONAK
<b>3. ERRONKA.</b> <b>Jasangarritasun lehiakorra</b>	<b>7 erakunde:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bilboko Merkataritza Ganbera</li> <li>• CONFEBASK</li> <li>• Mondragon Korporazioa</li> <li>• EEE</li> <li>• Ihobe</li> <li>• Orkestra – Lehiakortasunerako Euskal Institutua</li> <li>• SPRI</li> </ul>	<b>9 pertsona</b> <b>% 56 gizonak</b> <b>% 44 emakumeak</b>
<b>4. ERRONKA.</b> <b>Kontsumo-eredu kontzientea</b>	<b>10 erakunde:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Azurmendi</li> <li>• BBK</li> <li>• EGK – Euskadiko Gazteriaren Kontseilua</li> <li>• Ekomodo</li> <li>• Elika</li> <li>• Hazi</li> <li>• Kontsumobide</li> <li>• Twin and Chic</li> <li>• UNESCO Etxea</li> <li>• Deustuko Unibertsitatea</li> </ul>	<b>13 pertsona</b> <b>% 31 gizonak</b> <b>% 69 emakumeak</b>
<b>5. ERRONKA.</b> <b>Finantziario Jasangarria</b>	<b>8 erakunde:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• BRTA - Basque Research &amp; Technology Alliance</li> <li>• Eusko Jaurlaritza – Ekonomia eta Ogasun Saila</li> <li>• Ihobe</li> <li>• Kutxabank</li> <li>• Laboral Kutxa</li> <li>• Okiokredit Euskadi</li> <li>• Deustuko Unibertsitatea</li> <li>• UPV/EHU</li> </ul>	<b>9 pertsona</b> <b>% 44 gizonak</b> <b>% 56 emakumeak</b>
<b>6. ERRONKA.</b> <b>Monitorizazioa eta kudeaketa aurreratua</b>	<b>8 erakunde:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• BC3 Research</li> <li>• EUSTAT</li> <li>• EEE</li> <li>• Eusko Jaurlaritza – Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila</li> <li>• Ihobe</li> <li>• Metroeconómica</li> <li>• Iruñeko Planetarioa</li> <li>• UPV/EHU</li> </ul>	<b>10 pertsona</b> <b>% 40 gizonak</b> <b>% 60 emakumeak</b>

## C.2 GUNE PARTE-HARTZAILEAK

Guztira **18 GUNE PARTE-HARTZAILE** garatu dira. Faseen arabera, honela banatzen dira:

## 1. FASEA: “2030ERAKO INGURUMEN ESPARRU PROGRAMAREN BATERAKO SORKUNTZA”:

- Banakako hausnarketarako gune bat, erronkak baliozkotzeko eta osatzeko eta proiektuak identifikatzeko.

- 6 bilera erronkak osatzeko eta proiektuak identifikatzeko (1. etapa).
- 2 jardunaldi Sailaren eta lantaldeen koordinatzaileen arteko trukerako.
- Banakako hausnarketarako gun bat, proiektuen operatibizaziorako.
- 6 bilera proiektuak operatibizatze (2. etapa).
- Proiektuetarako ekarpenak jasotzeko formulario bat, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzarentzat.

## 2. FASEA: “2030ERAKO INGURUMEN ESPARRU PROGRAMA HERRITARREKIN KONTRASTATZEA”:

- Dinamika bat Irekiaren atarian.

### C.3. PROIEKTU ERALDATZAILETARAKO IDEIAK


Adituen taldeek **PROIEKTU** eraldatzaileetarako **51 IDEIA** sortu zituzten guztira.

Kontraste-lanaren eta taldekako hausnarketaren ostean, 51 ideia horiek sailkatu ziren eta horietako 14 aurretik onartu ziren. Horren ostean, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak proiektuen azterketa teknikoko prozesua gauzatu du, eta horrek ahalbidetu du **77 DOIKUNTZA-EKARPEN** egitea aurretik onartutako 14 proiektuetarako. Beste alderdi batzuen artean, proiektuen garapena errazteko gakoak identifikatu ziren, baita haien inpaktua maximizatze gomendioak ere.

Azkenik, proiektu batzuk berriz sailkatu ziren, eta horren ondorioz 8 dira definitutako proiektuak.

### C.4. EMAITZAK IREKIAN

EAEko 2030erako Ingurumen Esparru Programaren zirriborro-dokumentuak Irekian **JASOTAKO 25 BOTOAK** honela banatzen dira:



Horrez gain, ondoren ageri diren eskari konkrituak jaso dira, gehienak Etxandarri Euskal Mendi Taldearen aldetik, eta Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritzari eta Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzari helarazi zaizkie, baloratu egin ditzaten:

- Babestutako natura-eremuen azalera handitzea –orokorrean- eta Lemoizko labarrak –zehazki- babespeko eremu bihurtzea.
- Espezie exotiko inbaditzaileen arazoari heltzea, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren ingurunean, batez ere Lemoizko zentralaren lurretan.
- Lemoizko zentral nuklearraren inguruneko lurzoru babestuak berreskuratzea.
- Presentzia handiagoa ematea honako eremu hauei: “Lurzorua, Biodibertsitatea eta Zero Kutsadura”.



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**